

# ANDOLLU

— ARABA / ÁLAVA —

Gasteizko Udalaren barruan dago Andollu herria, hiriburutik 10 kilometrora. N-104 errepidetik abiatu behar da hirigunetik bertara iristeko, Elorriaga zeharkatuz. Arkautira heldu baino lehen, eskuinetara hartu behar da, Lizarrarantz, A-132 errepidetik zehar, eta atzean utzi Askartza eta Argandoña.

Villa-Alegre de Andollu izena zeukan antzina. 1314. urtekoak dira hiribilduari buruzko lehen datuak, urte hartan Juan Corbarán de Leet bertako jauntxoa zela, Aiarako etxearen mende jarri baitzen Joan I.a erregearen aginduz. 1466. urtean, Pedro Lopez Aiarakoak Andolluko eliza eman zion Kexaako monasterioari.

El pueblo de Andollu es dependiente del ayuntamiento de Vitoria, de la que se encuentra a 10 km. Se accede desde la ciudad por la carretera N-104 pasando Elorriaga. Antes de llegar a Arkaute se toma el desvío a la derecha, hacia Estella, por la carretera A-132, dejando atrás Ascarza y Argandoña.

Conocida antiguamente como Villa-Alegre de Andollu, los primeros datos que tenemos de esta villa corresponden a 1314, cuando siendo el señor del lugar Juan Corbarán de Leet pasó a la casa de Ayala por orden de Juan I. En 1466 Pedro López de Ayala donó la iglesia de Andollu al monasterio de Quejana.

## *Santa Katalina eliza / Iglesia de Santa Catalina*

**A**RO MODERNOKO eraikina da, atal biko saloi-oinplanoa duena. Portada erromanikoa du, oso bakuna; erdi-puntuko arkibolta bakarra dauka, baketoi laua

**S**E TRATA DE UN EDIFICIO de época moderna de planta de salón con dos tramos. La portada es románica, muy sencilla, con una sola arquivolta de medio pun-



Portada

Portada



Iparraldeko horma

Muro norte

eta landare-irudiko bi kapitelekin. Ezkerreko kapitelak ondo zehaztutako hostoak ditu; eskuinekoari, berriz, nekez antzematen zaizkio formak. Fustek lauak dira, eta harroin netan iruteko ardatz formako irudi batez daude apainduta.

Elizaren kanpoko aldean badira aztarna errománico batzuk: iparreko horman zazpi harburu alakatu, burualdea laua da, eta oraindik ere antzematen zaio ur biko teilatuen forma eta bao itsu bat.

1960. urte inguruan, Andolluko elizako aldarearen azpian, 167 x 74 x 21 cm neurriko hilobi-harlaiza bat aurkitu zuten. Kanpotik, harriaren gorengo aldean, marraztuta dago, barnean zulatuta, arku konopial bat, eta, berorren barruan erliebean eginda, kaliza, ozpin-ontzi bi eta patena bat Eukaristiako ogiaren irudiarekin. Apaiz baten hilobia dela uste dute, gotikoaren azken urteetakoan, itxuraz.

Testua eta argazkiak: REA

Texto y fotos: REA

#### Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 108; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, IV, pp. 188-191.

to con baquetón liso y dos capiteles vegetales, el izquierdo con las hojas bien labradas y el derecho con ellas apenas esbozadas. Los fustes son lisos y las basas presentan un tema decorativo en forma de huso.

En el exterior de la iglesia se conservan algunos restos románicos: en el muro norte se aprecia una línea de siete canecillos biselados; y en la cabecera, plana, se percibe aún la forma del primitivo tejado a dos aguas y un vano cegado.

Hacia 1960 se halló en la iglesia de Andollu, bajo el altar, una losa sepulcral, cuyas medidas son 167 x 74 x 21 cm. En el tercio superior de la cara exterior se dibuja, rehundido, un arco conopial que cobija en relieve las representaciones de un cáliz, dos vinajeras y la patena con el pan eucarístico. Parece corresponder al sepulcro de un sacerdote y puede pertenecer al gótico final.